

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



Gajoa. Zuhaitz gajoa, gaurko honetakoa: albo edo platano arrunta (*Platanus x hispanica*), Saran bizi dena. Bi sailen arteko mugazkina batean bizi da, eta hori haren hondabidea. Ez batena, ez bestearena, alde batekoak zasta iltzea sokari eusteko, bestekoak itxiturari tira egiteko danba entenga... Soilik argazkiko pusketa horretantxe hogeitik gora sartuak ditu... Oinazealdi ederra, bizitza osorako kalbario. Hil eta gero ere ez du etorkizun samurra izango, zerratzerakoan zerraren hortzak egur barruan ezkutatutako burdin puskak topatzean maldizio purrustada galanta entzun beharko du zerrariaren ahotik...

Esatera

“Eguzkia eta euria,
erromako zubia”

Gona arrosak

INBASIOAREN landareen sokari tiraka, loratze zorian dagoen errodo-dendroari, *Rhododendron sp.*, begira nago. Baratzte eta lorategietan gero eta maizago ikusten dira errodo-dendroak. Ingelesen landare honekiko aspaldiko txoramenak gero eta hibrido bereziagoen sortzea sustatu du. Inbasioaren kanpamentu, denda eta mintegietan ehunka desberdin dago aukeran. Uka-bila baino handiagoko kolore askotako loreak dotoreak dira, eta jendeak etxekotu nahi... Ez da landare erraza, ordea, eta gehienetan galdu egiten da. Klima ia etengabe hezea eta lur azidoak behar ditu eta aire lehor eta lur karetsuak diren tokietan bizkor hiltzen da. Geurean errodo-dendro heldu bat topatzea ez da teleberrierokoa. Izatekotan, txoko itzal, heze babesturen batean.

Europako inbaditzaileen artean zortzi errodo-dendro izendatu badituzte ere, bat da “beldurgarria”, *Rhododendron ponticum*. Berez Europa eta Asiaren arteko mugakoa bada ere, ingelesek etxeratu eta handik abiatuta kontinentea “okupatzen” ari da: Irlanda, Belgika, Frantzia, Herbehereak, Austria...

Errodo-dendro bat dugu hemengoa, Erronkariko Larra aldeko mendi garaian bizi dena, *Rhododendron ferrugineum*. Pirinioetan ezaguna da eta haitz gorriak arrosa koloreko gonaz janzen dituen sasoiak ikusgarria da.

Errodo-dendro jendeak trikimailu ederrak ditu beste landareak uxatu eta bera ugaltzeko. Gai kimiko toxikoak sortzen ditu eta intsektu ale batzuk kenduta, haren hostoari kosk egingo dion berdejalerik ez da topatzen. Lore bakoitzak 7.000 hazi ere eman ditzake, zuhaiska bakoitzak milioika... urtero. Asentatzen den tokian zaila dute gainontzeko landareek, zuhaitzen haziak ere erne ezinik izango dira bere azpi ezin ilunagoan metatzen duen inaurkinean. Inguruko tartearak harrapatzen iaioa da, bai haziz, baita adar muturrak lurra ukitzean errotuz ere. Beraren loreetatik sortutako eztia ere toxikoa dela aipatu izan da.



Rhododendron ferrugineum da Euskal Herrian dugun errodo-dendro espeziea; Erronkarin bizi da.